

GOBIERNO DE NAVARRA

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA,
INTERIOR Y JUSTICIA

RELACIONES CIUDADANAS E
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

DERECHOS SOCIALES

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL,
ADMINISTRACIÓN LOCAL Y MEDIO
AMBIENTE

Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko 93 ikastarotako 1.674 plazatan izen-ematea hastera doa

Ikastaroak, batez ere, pertsona langabeei zuzenduta, Iruñean eta Eskualdean, Erriberan, Lizarran, Lodosan eta Tafallan eskainiko dira

Lunes, 03 de agosto de 2015

Nafarroako Gobernuak, abuztuak 4, asteartean, irekitzen du batez ere, pertsona langabeei zuzendutako profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko 93 ikastarotako 1.674 plazatan izen-ematea. 93 ikastaro horietatik 71 Iruñean eta Eskualdean eskainiko dira, 9 Tuteran eta Erriberan, 7 Lizarran, 5 Lodosan eta 1 Tafallan. Eskaria betetzen doan heinean, ikastaroen edukiera ixten joango da.



Automozio-katea

Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko ikastaro hauek Lanbide Prestakuntzarako Sistema Nazionalarekin (SNCP) lotuta daude; beraz, gainditzen dutenek LHko zikloetako egiaztagiri ofizialarekin bateragarria izango den egiaztagiri ofiziala eskuratuko dute, lanbide-egiaztagiri balioarekin eta lurralde nazionalen eta europarrean indarrarekin. Praktikak barnebiltzen dituzten moduluak dira, enpresan pixkana sartzea ahalbidetuko dutenak.

Ikastaroak hiru mailan banatzen dira, horiek guztiak Hezkuntzako Europako Esparru Bateratuaren baitan. 1. mailakoak DBH amaituta ez duten pertsonen sarbidea laguntzen du, horrek Nafarroako Enplegu Zerbitzuari pertsona langabeei profesionalizazioan laguntzea eta haiek sistema osatu batean eta hezkuntza-sistema bereziarekin bateragarria denean berriz hastea ahalbidetzen dio. Horrek mailako ziurtagiriak amaitzen dituztenei prestatzen jarraitzea eta familia beraren baitan 2.mailako prestakuntza gehigarriak lortzea ahalbidetzen die; eta, baita, 3. mailakoak era, zeina, oinarritzko helburua izango den ahalik eta gizarteratzerik handiena lortzeko. 2. mailako ikastaroak DBH gainditu duten pertsonen edo, haren faltan, oinarritzko bi irakasgaitan (gaztelania eta matematikak) heltze- eta trebezia-probak gainditu dituztenei eskaintzen zaizkie. Bestalde, 3. maila batxilergokoei eta LHko goiko mailakoei eskaintzen zaie. Ikastaro horiek, gehienak, oso teknikoak izaten dira eta

enpresen berariazko beharretara asko hurbiltzen dira.

Uda amaieran eta udazken hasieran programa honetarako plaza gehiago deituko direla azpimarratu behar da.

Gazte-bermerako ikastaroak

93 ikastaro horien baitan, gazte-bermerako 17 ikastaro sartu dira, enplegurik gabe dauden eta heziketarako eta prestakuntzarako jardueratan ere parte hartzen ez duten gazteei zuzenduak, haiek izan dezaketen lan-esperientzia eta prestakuntza-maila kontuan hartu gabe. Gazteen langabeziari aurre egiteko talka-plana da, Espainiarentzako lau urtetarako 11,2 milioi euroekin hornitua. Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatuta dago eta lanean eta ikasten ari ez diren 30 urtetik beherako gazte guztiek lau hilabeteko epean kalitatezko lan-eskaintzaren bat edo etengabeko hezkuntzarako, prestakuntzarako edo praktiketarako proposamenen bat jasotzea bermatzea du xede.